

## Zertan dabilta euskal politikariak deitzen diren horiek?

Estatua da nazio baten benetako autodeterminazio politikoa bermatzen duen boteregune bakarra.

Nafarroa, euskaldunon estatua. Bi ideia azpimarratzen ditu aurtengo leloak: estatua badugula (ez da gutxi) eta Nafarroa dela.

Guk, ordea, estatua okupatua, bahitua eta zatitua daukagu, eta, egoera halakoa izanik, hona galdera: zertan dabilta euskal politikariak deitzen diren horiek?

Demokrazia batean biziko bagina bezala jokatzeko; estatu zapaltzaileek ezartzen dizkiguten instituzioetan euskaldunon artean lehiatzen. Baikortasun faltsu bat erakusten digute, botoen zenbatekoak ematen dien baikortasun hori, eta, bitartean, herria geroz eta ahulago. Bestalde, estatu zapaltzaileen politikak hobetu nahian ere lanean ari dira.

Zer espero da kolaborazio politika horretatik? Herriaren arerioak ezin ditugu kideztat hartu. Hori asimilaziorako bide zuzena da; ez ginateke jukutria horretan erori behar.

Kolaborazioa, nolako pagotxa Espainia eta Frantziarentzat! Horiek estatu inperialistak dira eta ahalegin guztia egiten dute euren inperioa mantentzeko. Duten indarra eta trikimailu guztiak erabiltzen dituzte bere identitate nazionalari eusteko eta menpean dituzten identitateak hiltzeko.

Euskal politikariek ezin dute ahaztu herri menderatuen lehenengo helburua askatzea dela. Madrilek eta Parisek baimentzen dituzten instituzioen kudeaketan denbora galtzen ari dira. Historiak erakutsi digu bide hori antzua dela.

Bestalde, ez gaitzen galdu nolakotasunean; nolako herria nahi dugu? Askea! Estatua berreskuratzen eta berrantolatzen dugun heinean joango gara diseinatzen geure estatu propioa.

Helburua garbi, etsaia garbi. Frantziako Estatua eta Espainiako Estatua dira gure mendekotasunaren erantzuleak, gure etsaiak. Orain ultraeskuina omen da mehatxua. Estatu horietako ezkerrek egin al du, ba, inoiz gure independentziaren alde? Benetan? Memoria laburra batzuna!

Herriaren alde egiten duen politikariak ez lituzke *independentzia*, *inperialismo*, *kolonizazio* eta *menderakuntza* hitzak baztertu beharko bere diskurtsotik; hain justu, etengabe erabili beharko lituzke eta zapalkuntzaren kontzientzia zabaldu. Badago horretarako premia, gazteen artean batik bat!

800 urte erasoak jasotzen, eta oraindik hemen: herria existitzen da, existitzen da erresistentzia dagoelako; bestela, honezkero desagertuak ginateke. Saiatu dira eta saiatzen ari dira, baina hemen gaude, ez dugu amore eman.

Erresistentziaren indarra handia da existitzeko modua delako, bizirik irauteko modua delako, eta guk bizirik jarraitu nahi dugu. Erresistentzia hori guztia, indar hori guztia, nazio askapenera bideratzea da bide bakarra.

Aztertu ditzagun independentzia lortu duten estatuen estrategiak, ikasi haiek egindako prozesuetatik. Erresistentzia batu, indarra batu, zapalkuntzaren kontzientzia zabaldu, askapenerako politika behar dugu herriari begira eta herritik sortua.

Errobiren kantzak dioen moduan, "gure lurra gu nagusi" izan arte.